

HEZKUNTZA egungoa

S i n d i k a l H e z i k e t a

Egoera ekonomikoaren azterketa

LAB
Hezkuntza

**ZA
BAL
TZEN**

Zbkia

SHK 00005

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



Egoera ekonomikoaren azterketa

Egoera ekonomikoaren azterketa

Erredaktoreak: **Joselu CERECEDA**
Marijo ARRAIZA
Rafa IZQUIERDO
Sara QUESADA
Iosu HUERTAS
Aitor ASTIBIA

Argitarazleak: **Ipar Hegoa Fundazioa.**



EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA ENBIZARTE SEGURANTZA ERALA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

1999ko martxoak



Egoera ekonomikoaren azterketa

ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOEN TAULA	4
KRISIAN DAGOEN SISTEMA BATEN ITXURAZKO GORALDIA	5
Gero ta nabariagoa den eritasun baten sintomak	5
Beste sintoma esanguratsu eta ilun bat: deflazioa	6
Korritu tasen jeitsiera, eraginkorra al da?	6
LAN MERKATUAREN ANALISIA	7
Enplegu politikak eta kontratazioa	7
Iharduera, enplegua eta langabezia	9
1998ko urtean sinaturiko kontratuen %93a kolokakoak izan ziren ...	10
1999ko lehenengo hiruhilabeteko kontratazioa	12
Lan ezbehartasuna, iragankortasuna eta	
Aldi Baterako Lan Enpresak (ABLE-ETT)	13
LANGABEZIA ETA ERROMESKERIAREN DESBABESA	15
EMAKUMEA ETA SOLDATAREN BEREIZKERIA	17
KPI (IPC) ETA ESKURATZEKO AHALBIDEA	19
ERANSKINAK	21

ADIERAZLE SOZIOEKONOMIKOEN TAULA

ESKAINZA ETA ESKAERA		NEURRIA	98	97
BPG (Hego Euskal Herria)		aldak.%	5,4	4,4
Industri produkzioa (EAE)		aldak.%	7,6	10,2
Industri iharduera (Nafarroa)		aldak.%	5,5	6,9
Ahalmen Produkzio Erabilera (EAE)		%	82,0	79,0
Ahalmen Produkzio Erabilera (Naf.)		%	81,0	83,0
PREZIOAK ETA SOLDATAK				
KPI (Hegoalde)		%	2,1	
Soldaten igoera (EAE)		%	2,4	3,3
Soldaten igoera (Naf.)		%	3,4	3,3
HEGOALDEKO KANPO ARLOA*				
Esportazioak		aldak.%	6,8	25,7
Inportazioak		aldak.%	11,2	15,1
Merkatal saldoa		Milioiak	671.071	687.773
NAZIOARTEKO EKONOMIA				
Langabezi tasa	EE.BB.	%	4,5	4,9
	Japonia	%	4,1	3,4
	Frantzia estatua	%	11,8	12,5
	España estatua	%	18,8	20,8
BPG	EE.BB.	% var.	3,9	3,9
	Japonia	% var.	-2,9	1,4
	Frantzia estatua	% var.	3,2	2,3
	España estatua	% var.	3,8	3,5
KPI	EE.BB.	%	-0,9	0,4
	Japonia	%	0,6	1,7
	Frantzia estatua	%	0,6	1,2
	España estatua	%	1,8	2

* España estatutik kanpoko merkataritzako harremanak.

Krisian dagoen sistema baten itxurazko goraldia



GERO TA NABARIAGOA DEN ERTASUN BATEN SINTOMAK

Samir Aminen ustetan, Kapitalismoa, krisian dago, orain direla 25 urtetik, gutxienez. Garai hartan, jadanik, ekonomi garapenaren desazelerazioa nabaria zen. Harrez geroztik, inbertsio produktiboez, mundu zabalean, gero ta erritmo ahulagoa daukate. Gaur egungo garapen-tasa, 40.ko hamarkadako parekatuz, erdia da, gutxi gorabehera. Beraz, krisi sakon batean gaude murgilduta, zeinak, beste fenomeno batzuren artean, ziklo produktibotik kanpo ipintzen den soberako kapitala sortzen baitu.

Neoliberalismoak -ezkerra konbentzionalaren onarpenarekin-Kapital/Lana erlazioan, aldaketa sakon bat sortu du -Kapitalaren mesederako, noski-. Hori dela eta, Ongizate Estatuaren suntsiketa, Lagabeziaren etengabeko hazkuntza, erromeskeria, giza-bazterketa... gertatzen dira.

Krisiak zabaltzen darrai eta dau den datuak ez dira batere baikorrak:

Egoera ekonomikoaren azterketa

- 1.-Asiar lurraldeek, finantziar-krisiak eraginda atzeraldi sakonean darraite.
- 2.-Japoniaren egoera aterabidegabekoa da, zeren bere egiturazko arazoentzat ez baita irteerarik aurkitzen.
- 3.-Brasildar "Real"-aren krisiak, halaber, jarraitzen du bai eta nazioarteko finantziar komunitatean duen eragin negatiboa ere.
- 4.-Iparamerikan ere, segurtasun falta da nagusi. Aurrezki pribatua, gaur egun, negatiboa da eta, logikaz, Eskari Globalaren beharpena espero da, batez ere, Kontu Korronteen Balantzan dagoen defizita kontutan hartzen bada.
- 5.-Germaniar Ekonomiaren aurreikuspenak ez dira batere positiboak, batez ere enpresarial inbertsioaren aldetik. Urte honetan, Europar Ekonomiaren desazelerazioa aurreikusten da zeren hazkunde-tasa %2a izan dadila espero baita.

BESTE SINTOMA ESAN-GURATSU ETA ILUN BAT: DEFLAZIOA

"Zazpien Taldea"-k, 1.999.ko Martxoan, izan zuen inflazio-tasa, %1a izan zen. Alemanian, salneurriak, 0,2%a jeitsi ziren eta Frantzian, 0,3%a (1.999.ko Urtarrilean). Eta hau ez zen gertatu inflazioaren aurkako hartutako neurriek eraginda, ez. Itxura guztien arabera, Europan, prozesu deflazonario bat hasi da (Espainiar Estatutan, momentuz, kontrakoa gertatzen den arren).

Eritzi hau dauka "The Economist" egunkariak. Deflazio-espiralak etekinak murrizten ditu, soldaten eta plantillen urripenak eraginez. Ondorioz, Eskari Globala murriztuko da eta zikloa, berriro errepi-katuko da.

Azken urte t' erdi honetan, langaien salneurriak etengabe egon dira jeisten (petrolio, kautxo, kafe, burdingorri-kobre-, nikel, burdin, soia...). Eta erruduna ez da izan Asiar Krisia, baizik eta berrikuntza teknologikoen eta globalizazioak eragindako gainproduktzioa.

Europar, bi talde antzeman daitezke: desazelerazioan daudenak (Alemania, Italia, Belgika, Austria, Frantzia eta Holanda) eta, momentuz behintzat, badirudi euren iharduera mailari eutsiko diotenak (Espainia, Irlanda, Luxenburg, Portugal, Finlandia...). Baina "globalizazioa"-nazioarteko elkarmenpekotasuna- kontutan hartu behar da. Lehenengo taldearen desazelerazioa, bigarrenaren esportazioak murriztuko ditu, honetan desazelerazio bat bultzatuaz.

KORRITU TASEN JEITSIERA, ERAGINKORRA AL DA?

Korritu taseen jeitsieraz zera esaten da: Inbertsioa, Kontsumoa, Eskari Globala -azken finean, Garapenahedatzeko zuzenduta dagoen Ekonomi Politikaren neurri bat dela. Korrituen jaitsierak Inbertsioa bultzatzen duela esaten da. Egia da,

baldin eta Kapitalak etekinak lortzeko itxaropenak baditu eta hau ez da gertatzen egoera honetan. Bestaldetik, korrituak jeistea eta zirkulazioan dagoen diru-kopurua gehitzea antzeko neurriak dira. Diru kopurua gehitze hutsak, besterik gabe, hots, egiturazko eta Ekonomi Politikako aldaketarik gabe, ez du Garapena bultzatuko. Korrituen jeitsierak, Burtsa "dopa"-tzen du, espekulazioa bultzatzen du, kotizazioak artifizialki igoz. Lotan dauden bitartean aberasten direla sinestazten die diru merkearen politikak espekulatzailerik. Esate baterako, New York-eko Burtsak, enpresak, euren balio erreala %25 gainetik baloratzen ditu. Holako zerbait gertatzen da ia lurralde guztietan (Espainiar Estatua barne). Adituen arabera, baliteke dolarraren jeitsiera gogor eta Wall Street-en krak sakon bat gertatzea. Hau gertatuko balitz, krak-ak ugarituko dira, burbuila espekulatiboa finantziar merkatuetatik alde egitean ("globalizazioa" eta finantzarizazioa batuta dabilta). Garaiz edo berandu, kotizazioek -jeisten- errealitate ekonomikoa isladatu behar dute. Honek, espektatibak berriro murriztuko ditu, Inbertsioa eroriko da eta politika sozioekonomiko murrizgarriagoak izango dira, mundu osoan, egoera depresiboa areagotuz. Lurralde bakoitzean, zenbat eta Kanpo Merkataritzaz menpekotasun handiagoa, hainbat eta eragin fuerteagoak izango dira. Agian, Neoliberalismoaren gaurko garaiaren Heriotza ikusten ari gara... beste basatiago bat sufritzeko.

Lan merkatuaren analisi



ENPLEGU POLITIKAK ETA KONTRATAZIOA

E.A.E an 1998 urtean, batz besteko, biztanleria aktiboaren %17,8a langabezian izan da, altuago emakumeena %26,5a eta gazteena %36,7a. Nafarroan azken hiru hila-beteko tasa %10,1 izan da (%19,02 emakumentzako). Langabezi maila ez da murrizten ekonomia aldi onenetan horregatik neurriak hartzea beharrezkoa da. Azken urte hauetan lan merkatuan burutu den

parte hartzea, lehenengo eta behin PSOEn gobernuak eta ondoren PPK egindakoa, ondorengo neurri motekin ebatzi da:

- Alde batetik **iharduerarik eza areagotu dadin emandako politikak**, hots, lan merkatutik at dauden lagunen kopurua handituz (lanik gabeak deiturikoak), honako taldetako batean sailka-

tuz: nahitaezko ikasleak, langabetu uzkurak, aurrejubilazioak, etxeko lanak, etab. Neurri honek, langabezi estatistika kopurua murrizten duen arren ez du alda-tzen benetako egoera.

- Bestaldetik, **kontratazioa aldatzera zuzendutako politikek** helburu bakarra dute, soldata kostuak merkeagotzea. Hots, izan

Egoera ekonomikoaren azterketa

diren hurrengo lan erreformak langileen kontratu harremanak azpimarratzeari bakarrik ekin diote, eta hau kontratu mota berriak sartuz, direnen ezaugarriak aldatuz eta baita ere kontratazioari diru laguntzak emanez burutu da. Beti ere malgotasun handiagoa automatikoki enpresarientzat soldata kostu gutxiago batean bihurtzen dela eta lan kostu horren merkeagotzea enplegua areagotuko duela pentsatuz.

Baina kontratuen kopurua behin behinekotasunaren gehitzeagatik bakarrik eta eskusiboki gehitu daiteke enplegua aldatu gabe. Alegia, urte batean egindako kontratuen kopurua laukoizten bada, kontratu horien iraupen laburragoa delako jazo daiteke. Adibidez, urte bateko iraupena duten kontratuak egin beharrean, 3 hilabetetakoak egingo balira, kontraturiko pertsonak berak izango lirakeke ere, urte horretan kontratu bat egin beharrean 4 kontratu egingo bailitzaizkioke.

Hego Euskal Herrian, 1996.ean, iraupen zehatzeko kontratuen %71,70ak, 3 hilabete baino gutxiagoko iraupen bazuen, 1998.ean, ehuneko %77a izan zen.


Kontratu ez-mugatuak dira beraz, enplegu sortzearekin zuzenki zerkusi gehiago dituztenak, nahiz eta hau ere lan erreformekin aldatu den, kontratu ez-mugatu berriak deusezgarriagoak direlako. Hala ere, eta urte batean behin-behinekoko kontratuen kopurua areagotzen den ikusi behar da diren lanpostuak zein abiaduran deusezten diren. Urte batean sortzen diren bezainbeste kontratu desagertzen badira enplegu garbia iraunkorra mantenduko da.

IRUDIAN 1990 urtetik 1998 urterainoko bilakaera ikusten dugu, nahiz soldatapekoak nahiz kontratazioarena. Eta bertan ikus dezakegunez, 1993 urtetik aurrera kontratazioa handitzen dela, soldatapekoen kopuru garbia ia iraunkor

dagoenean, eta horrek, enplegu garbian aipatu ditugun bi fenomenoak negatiboki eragin izan dutela erakusten digu. Hots, deusezturiko enpleguak eta behin-behinekoko kontratuen errotazioan gehitzea. Eragin hau horren handia izan da 1998 urtean, zeren soldatapekoen areagotzea gertatu den arren, EA-En 562.560, kopuru hori EAEnko soldatapeko biztanleria guztiaren kopurura, 615.700 lagun alegia, ailegatu baita. 1998 urtean 147.319 kontratuak egin ziren, aurreko urtean zeuden soldatapekoak baino gehiago.

Lan erreforma hauek **“azpienpleguaren”** agertzea ekarri dute. Azpienplegua ohikoaren azpitik dagoena da, nahiz lanaldiari dagokionean (urteko edo hileko zenbaketa), nahiz soldatari dagokionean.

• **Egun zatiko kontratua**, lanaldi osorako lana bilatzen ari diren pertsonak izan arren, ordu gutxiago lana egitera beharturik daude. INEk egindako inkesta baten arabera, egun zatiko kontratua duten emakumeen % 3,8ak bakarrik dio borondatez aukeratzen dutela; %7,4ak, familiaren bultzatuta; eta gainontzeko % 90ak, inposaturiko egoera dela eta egun osorako lana egin nahiko lukeela. Bi adibidetan pertsona hauek azpienplegatuak daude, edo bestela erdilangabetua esan genezake, eta beren soldata lan egindako lanarekiko proportzionala denez, azpienpleguak fenomeno berria eratortzen du, eta



hau txirotasuna da. Ez bakarrik enplegu eza dela eta, baizik eta txirotasunaren atariaren hurbil dagoen ordaintzea gertatzen delako.

• **Kontraturik gabeko soldatapekoak.** 1.993an soldatapekoen %4ak ez bazuen kontraturik, 1998 urterako ehunekoa %6ra igo zen. Beraz, emakumezkoak dira ezkutu ekonomian gehien bat dihardutenak %81arekin, gizonezkoak aldiz %19ekin.

• **Aldi Baterako Lan Enpresen (ABLE) bitartez egindako langileen azpikontratazioa:** Hego Euskal Herrian, ABLEen bitartez 173.033 kontratu formalizatu ziren, eta hauetan errotazioa askoz ere handiagoa da.

Azpienpleguarekin batera, beste fenomeno bat suertatzen da, gainegitekoarena. Urte hauetan paradoxa-ondorioa gertatu da, alde batetik azpienplegua areagotzen delako eta, astero 15 ordu baino gutxiago lan egiten duten pertsonak, eta bestaldetik astero 40 ordu baino gehiagotan lan egiten duen pertsonen kopurua handitzen da, gehienetan aparteko orduen bitartez. Biak, soldatapeko langileen arteko desberdintasunak handitzera lagunduz.

IHARDUERA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

Populazio Aktibo Inkestaren arabera (PAI), 1.988. urtean, Hegoaldean, 162.200 langabetu izan ziren. Iparraldeko 13.400ei (1) gehitzen badiegu, orokorrean, Euskal Herrian 175.600 langabetu izan zirela esan dezakegu.

PRA(2) Inkestak, aldiz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 156.500 langabetu izan zirela zioen, hots, PAIk esan zuena baino 17.800 gizaki gehiago.

Nabarmentzekoa da, bost urteko hazkunde ekonomikoaz eta enpresarien etekin ikaragarriez igaro ondoren, Hegoaldeko langabezia tasa oraindik zela %14,80a (PAI-IV. Hiruhilabeteko) ziurtatzea, Iparraldekoa baino hiru puntu eta Europar Batasuneko batazbestekoa baino bost puntu gehiagokoa.

Nahiz eta iazko urtean langabezia jeitsi (31.500 pertsona gutxiago), 10.400 baino ez zuten lanpostu bat lortu, gainontzeko 21.100ak "pasi-bo" egoeran sartu ziren. Lan Merkatutik kanporatuta pertsona hauek, lanpostu bat lortzeko ezintasuna dela eta, ezta langabezia kopuruetan ez dira sartzen.

Hala eta guztiz, gaurko eredu ekonomikoaren ondorioz gogorren jasaten dutenak, emakumezkoak eta gazteak dira. Lehenengoak, langabezia dagoen populazioaren %61a dira, %22,60 langabezia tasa jasaten dute, Europar Batasunean dagoena halako bi, eta Hegoaldeko gizonezkoek dutena baino 13 puntu gehiagokoa.

Gazteriari dagokionez, urtearen amaieran, %31a izan zen; hots, Hegoaldean dagoena halako bi, eta Europako gazteriarena baino 12 puntu gehiago.

LANGABEZI TASAK - 1998ko 4. HIRUHILEKOAN

	HEGOALDE (EPA)	EAE (PRA)
Sexu biak	% 14,8	% 16,4
Emakumezkoak	% 22,6	% 24,9
Gizonezkoak	% 9,5	% 10,7
Gazteak	% 30,9	% 33,7

¹ Iturburu: L'ANPE

² PRA inkestak, metodologikoki EPAk baino garantzia gehiago eskaintzen ditu. Hala eta guztiz, EPAren emaitzak darabilzkigu, zeren horrela, Hegoalderako homogeenak diren datuez lan egin baitezakegu.

Egoera ekonomikoaren azterketa



Lan Merkatuak duen beste ezau-garri bat hauxe da: ezin dugula ahaztu errosmekeriaren errealitatea. Segidan egindako lan erreformek eta behin-behineko kontratazio mota anitzen erabilerak eraginda, lan baldintzak eta segurtasunik eza okertu dira.

Aldikotasun tasa handiak hau guzti hau frogatzen du: 1.998.ko IV. Hila-betekoan, Hegoaldeko langileen %30a eragiten zuen. Baina askoz larriagoa da gazteriaren egoera, zeren lau gaztetik, hiru jotzen baititu.

Sorturiko enpleguren kalitatea hain prekariora eta ezegonkor da, zeren atzeraldien eraginak, aurreko goraldi ekonomikoan sorturikoak baino lanpostu gehiago galduarazten baititu.

1998.KO URTEAN SINA-TURIKO KONTRATUEN %93a KOLOKAKOAK IZAN ZIREN

Nahiz eta 1998an Hego Euskal Herrian kontratazioaren igoera bat eman, 700.000 kontratu baino gehiago sinatu dira, prekarietatearen geldiezina eta lan baldintzen okertzerako joera adierazten duten aspektu garrantzitsu batzuk aipatu behar dira.

Alde batetik behin-betiko kontratuen adierazgarritasun eskasa ikusten da, kontratazio osoaren artean soilik %8a suposatzen baitute, ia ohiko ez-mugatuaren desagerekin batera (kontratu guztien artean %1,4a), kontratu egonkor berriagatik ordezkaturia izan baita.

Kontratu figura berri honek dituen deuseztapen¹ maila handiak, faltzueriaz ez-mugatua izenarekin deitua dena eta kaleratzeagatik kalte ordainketa txikiago bat eragiten duena, abiarazi zenean, lanean segurtasun ezako faktore berri bat sartu ziola langile orori erakusten du.

Bestaldetik, sinatutako lau kontratuetatik bat aldi partzialekoa da. Kontratu mota honek aurreko urteetik hona %24ko igoera izan zuen, hau da, kontratazio osoak izandako igoeraren bikoitza.

Kontratu mota honek, definizioz eta proportzionaltasuneko erizpideekin ados, soldata baxuagoa eta gizarte estaldura gutxiago eratoritzen du, duela gutxi sartutako hobekuntzak izan arren, batez ere lehenago zegoen printzipioa berreskuratzen ez delako:


"lan eguna- kotizaturiko eguna".

Azken finean, hedatze garaia izan arren, izenpetzen diren 100 kontratuekiko 93k lan baldintza eze-gonkorrak izaten dituzte. Gertaera honek, azken 5 urteotako hazkunde ekonomikoa haundia izan arren larriagotuz joan dena, enpresariak prekarietatea bere etekinak handitzeko tresna bezala erabiltzen jarraitzen dutela adierazten du.

Langileria jasaten duen prekarietate neurrian eragina duen beste faktore bat iraupen motzeko enkadenatze injustifikatu eta fraudulentoak probokatzen duen errotazio laboralaren gehikuntza da. Eta horrela ulertzen da kontratazio markak enplegu gehiagotan ez bihurtzea.

Behin-behineko kontratu guztien artean %79,3ak hiru hilabete edo gutxiagoko iraupena izan zuen. Urte bat edo gutxiagokoak kontutan hartzen baditugu portzentaia %99,6ra igotzen da.

Kontratazio ereduak kontutan izaten baditugu, gehien erabili izan dena ekoizpen arrazoiengatik ez-finkoa izan da, egindako kontratu guztien %31,5a suposatzen baitute. Jarraian, garrantziaren arabera, eskulanen edo zerbitzuaren behin-behinekoa %25,8rekin, eta egun zatiko behin-behinekoa %22arekin.



¹ 1997ki maiatzatik aurrera sinatutako kontratu egonkor berrien % 16a 1998ko abenduaren 31rako deuseztuak zeuden, eta hori enpresaren kargurako Gizarte Segurantzako kuoten % 50eko dirulaguntza izan arren.

Egoera ekonomikoaren azterketa

Emakumeak eta gazteak: bereziki zigortutako sektoreak.

Aldiz, kontratuzko behin-behinekotasuna ez da neutroa generoari eta adinari dagokionean. Ildo honetan, oso larria da gazteriak jasaten duen lan egoera, talde honetakoak sinatutako kontratuen %5,2a bakarrik ez-mugatuak izan zirelako.

Horrela, gazteriaren artean dagoen langabezi tasa haundiarekin batera, lana dutenen lau gazteen artean hiruk dute behin-behineko kontratua.

Lan merkatuan emakumeek jasaten duten bazterkeria begibistan ere geratzen da 1998. urtean zehar emakumezkoen egin zitzaizen kontratu guztien %6,8a bakarrik ez-mugatu izatera dutela egiaztatzean; %8,8a gizonezkoen dagokionean.

Emakumezkoen kontratu guztien %42a baino gutxiago sinatu zuten eta hala ere, denbora partzialeko kontratuen %67a eta tartekotasunen %63aren sinatzaileak izan ziren.

ABLEen bitarteko kontratazioa.

Hego Euskal Herrian 1998. urtean zehar Aldi Baterako Lan Entrepresen bitartez egindako kontratuak 173.033 izan ziren; hau da, ABLEak INEMen erregistratutako lau kontratuetatik batean parte hartu dutela. Horrek, duela urte bateko epe

berarekiko %25ko gehitzea suposatzen du.

Aldiz, lan bitartekaritzan Aldi Baterako Lan Entrepresen mailakako sartze ahalmenaz konturatu ahal izateko, ABLEen bitartez egindako kontratazioak behin-behineko kontratazio guztiarekiko izan duen bilakaera ikertzea derrigorrezkoa da. Honela, ABLEek 1995ean behin-behineko kontratazioaren %10a bereganatu zutela ikus dezakegu, 1998. urtean ehuneko hau %26,5a izateraino gehitu denean.

ABLEak gero eta sartuago daude lan bitartekaritzan eta honek, kontratu mota hauek suposatzen duten esplotazio baldintzak zabaltzea ahalbideratzen du.

1999.ko LEHENENGO HIRUHILABETEKO KONTRATAZIOA

Kontratazioari dagokionez, 1999ko lehenengo hiruhilabeteko datuek, iazkoekin parekatuz, ez daukate diferentzia handirik. Tarte honetan, 190.000 kontratu -apur bat gehiago- erregistratu ziren, %57,5a gizonezkoen zegoenez eta %42,5a emakumezkoen.

Sinaturiko kontratuen %10a, muga gabekoak izan ziren, baina emakumezkoen eta gazteen kasuetan, mota honetako kontratazioa, %8,4a eta %7,3a izan zen, hurrenez hurren.

Kontratu motei bagagozkie, nabarmentzekoak dira aldi baterako kontratuak, ekoizpenaren zirkunstanziek eragindakoak %31,1a izanik, obra eta zerbitzugatikoak, %26,8a, eta zatikako denborazkoak, %20a. Emakumetan, zatikako denborazkoek, dituzten bi modalitatetan, erabilienak izaten jarraitzen dute (%66,7%). Antzeko zerbitzua gertatzen da aldartekotasunezkoekin, zeren %65,7%a emakumezkoek baitagokie.

Lan biraketaren maila garaiak ere, ez dira jaitsi: denbora jakinekoek (%99,55a) ez dute gainditzen urte bateko iraupena eta %77ak, hiru hilabetekoa.

LAN EZBEHARTASUNA, IRAGANKORTASUNA ETA ALDI BATERAKO LAN ENPRESAK (ABLE)

Ezbehartasunaren eta lanbide-gaitasunen bilakaerak, emaitza kezkagarriak utzi zizkigun 1.998. urtean. Arrazoi honek eraginda, 148 heriotz-istripu gertatu ziren. Horrek, iazkoa baino %31a gehiago. Ikargarrizko datu honi gehitu behar zaizkio, 820 istripu larriak eta 60.099 arinak.

Guzti honi, lan-baja sortu ez zuten istripuak gehitzen badizkiogu, istripuen guztizkoa 140.086 izan zela ondorioztatzen da (lanbide gaitasunak kontutan hartuz).



Egoera ekonomikoaren azterketa

Hala eta guztiz, estatistika ofizialek, besteen konturaz lan egiten dutenak baino ez dituztela kontutan hartzen, azpimarratu behar da, eta ez guztiak, gainera, zeren isilpeko ekonomian sortzen direnak ez baitira erregistratzen. Gainera, istripu larri ugari, arinak balira bezala erregistratzen dira eta arinak izan diren asko, kontabilizatu ere, ez dira egiten.

Nahiz eta zenbakiak hotzak izan, adierazgarri nahiko dira, langileek jasaten duten osasun-baldintzen eta segurtasunaren alperrikaltzez ohartarazteko.

Egoera honen erantzukizuna, lan osasuna eta istripu prebenzioari buruzko indarrean dagoen legeria betetzen ez duten enpresariei da-

gokie zuzen-zuzenean, bai eta beren joera arduragabeaz guzti hau baimentzen duten administrazio desberdinei.

Ezin dugu ahaztu, baita ere, lan erreformaren bidez Madriletik inposaturiko Lan Merkatuaren "malgutasuna"-k, zerikusirik handia daukala lan ezbehartasunak jasandako gehikuntzaz.

Aldi baterako kontratazioaren era anitzen erabilerak eta neurrigabekeriak, Aldi Baterako Lan Enpresen iharduerak eta gora doan azpikontratazioak, gehiegizko lan-biraketa eragiten dute, zeinak esperientzia eta lan-hezkuntza egokiak hartzea ostopatzen duen. Hau da, lan-istripuen kopuru handia eragiten duen beste arrisku erantsi bat da. Egitez, aldi baterako lan batean istripu bat izateko dagoen aukera, lan egonkor batean dagoenarena halako bi da.

Hori frogatzen dute kontratu motaren araberako eginiko estatistikek, zeinek zera dierazten duten: Aldi Baterako Lan Enpresak legeztatu ziren urtean -1.994. an, hain zuzen-aldi baterako motaren batetan lan egiten duten langileek jasaten duten ezbeharraren tasak⁴ zuen jorran, goranzko aldaketa nabarmen bat sortu zen. Harrez geroztik, lanpostu batetan lan-istripu bat izateko dagoen probabilitatea, etengabe igotzen dago.



⁴Istripuen milakoa Ikus ERANSKINA.

Langabezia eta

erromeskeriaren desbabetesa



Euskal Herrian, 1.998.ean, langabetuen batzbestekoa, 188.537 pertsonakozan zen, baina bakarrik hirutik batek langabezia prestazioren bat jaso zuen. Ikus daitekeenez, desberdintasunak, egon, badaude, lurraldeen artean.

Baionako Merkataritza eta Indus-trigintzako Ganbarak dioenez, Iparraldean, langabetuen artean, lautik hiruk -gutxi gorabehera- langabezia prestazioak jaso zituzten. 1998 urtean, langabezia zeudenak gutxituarren -645 pertsona gutxiago erregistratu ziren-, prestazio hauen onuradunen kopurua igo zen -617 pertsona gehiago- estalduren gehikuntzari esker.

Egoera ekonomikoaren azterketa

1998 URTEA			
	HEGOALDE	IPARRALDE	EUSKAL HERRIA
Langabetuak	174.833	13.704	188.537
Onuradunak	51.800	10.105	61.905
Estaldura tasa	30%	74%	33%

ITURBURUAK: inkesta EPA, Lan eta Arazo Sozialen Ministeritza eta Baionako Merkataritza Ganbara.

Hegoaldean, aldiz, -EPA-k egindako inkestaren arabera-, langabetuen %30ak baino ez zituen jaso languntzak. Estaldura tasa urri hau, Lan Merkatuaren "malgotasuna"-k eta 1.992.ean, POSE-ren "Dekretazio" ospetsu hark sartu zituen murrizketek eraginda da.

Subsidioak jasotzeko eskubideen gogortasuna, prestazioen zenbatekoa eta iraupenaren murrizketa, aldibaterakotasunaren igoera eta gero ta txikiagoa den kontratuen iraupena dira, hain zuzen, langabetuen artean, hirutik bat erromeskerian egotearen errudun zuzenak.

Dualismo, erromeskeria eta bazterketa prozesu honi aurre egiteko, Enplegu eta Giza Babesa Politika Erreala garatu ahal izateko, behar beharrezkoak diren lanabes politikoak eta legegintza eskumenak lortu behar ditugu.

Aldi berean, 35 orduko lan astea eta diru-sarrera nahikoak ez dituztenentzat kalitatezko eta duina den bizitza bermatzeko beharrezkoa den Giza Soldata bat lortzeko, gure ahaleginak areagotu beharko ditugu.

Emakumea

eta soldataren bereizketa



Soldata Inkestaren arabera (INE), 1.998. urtean, batz besteko soldata- "irabazketa" igo zen, %2,8a Nafarroan, 236.344 pezeta gordineko izanik, Euskal Autonomi Elkartean %2a eta 264.009 pezeta-ko izan ziren bitartean.

Baina kontutan hartu behar dugu "irabazketa" hauekin, soldatatzat hartzen diren ordainketa guztiak

-aparteko orduak barne- biltzen direla, atxikipenak eta Gizarte Segurantzari ordainketak egin baino lehen.

Garrantzitsua da, baita ere, zenbaki hauek hantuta daudela adieraztea, zeren kalkulatzeko ez baitira kontutan hartzen enpresa txikiak, zeinetan, ordainketak txikiagoak diren⁵.

⁵ Enpresen % 90ek bost edo langile gutxiago dauzkate eta enplegu pribatuen % 33a bereganatzen dute.

Egoera ekonomikoaren azterketa

Hala eta guztiz, datu hauek oso ondo adierazten dute soldaten etengabeko desazelerazioa, zeinek jadanik, ezta beren erosteko ahalmena mantentzen ez baitute. Baina, bere gordintasuna dela eta, azpimarratu nahi duguna zera da: Gizonezko eta emakumezkoen arteko dagoen soldataren bereizkeria gogorra.

Emakumezko langile nafar baten hileroko "irabazketa" gordina, batz bestea, gizonezko langile baten %32,8a baino gutxiagokoa da, Euskal Autonomi Elkartean, emakumeek, hileroko, gizonezkoek baino %30,4a gutxiago jasotzen duten bitartean.

Segidako lan-eraldaketa batzuk egin ondoren, Lan Merkatuan sorturiko aldaketek, eta lanpostu bat lortzen dutenek jasan behar dituzten desberdintasunek, emakumezkoek jasotzen duten ordainsarian eragin negatiboa daukate. Jakina denez, emakumezkoen kolektiboa Lan Merkatuan hasi da sartzen, nolabait esateko.

Soldaten desberdintasun hauek eragiten dituzten faktoreen artean, emakumezkoen aurkako egiten den bereizkeria kontraktuala dago, zeinak gizonezkoak baino behartuagoak baitaude aldi baterako kontratazioa soportatzeko.

Baina, lan orduko soldata-irabazketa gordinak kontutan hartzen baditugu ere, soldataren zaloguneak, nahiz eta txikiagoa izan, eskandagarria izaten darrai. Emakumezkoek orduko kobratzen dute, gizonezkoena baino %29,4a gutxiago Nafarroan eta %25,1a gutxiago Euskal Autonomi Elkartean.

Egoera honen zergatiarik garrantzitsuena, zereginetako bereizkeria da, zeren emakumezkoentzat gordetzen baitira gutxien kualifikatuta dauden lanpostuak bai eta, nahiz eta lanbide-kualifikazio berdina izan arren, soldata txikiagoak kobratzea.

Soldataren bereizkeriak beste arazo erantsi bat suposatzen du: Soldata txikiago hauek, jubilazio pensio txikiagoak eragindo ditu baita ere.

KPI

eta eskuratzeko ahalbidea

Hegoaldean, 1988ean, Kontsumo Prezioen Indizea (KPI), %2,1a igo zen. Horrek, Estatuko KPIrekiko desberdintasun nabaria suposatzen du (%1,4a).

Soldata igoerak negoziatzeko orduan, enpresa eta sektore-konbentzio askotan Estatuko KPI erabiltzeak, estrategia hau bera aldatzea eta Estatuko erreferentzia gainditzea eskatzen ditu, gure soldaten erosketeko ahalmenaren etengabeko galera ekiditzeko.

Ikuspuntu zabalago batetik aztertuz, gaur egun, Soldata igoerak Inflazioa izatearen errudun bakarrak direla esaten da inolako lotsa eta rigorik gabe. Gezurrezko ohitura honen aurka ihardun behar dugu. Esate baterako, iaz, Araban eta Gipuzkoan, inflazio tasa izan zen %1,2a eta %2,8a hurrenez hurren, nahiz eta soldata-errebisioak ia berdinak izan. Datu honek berez egiten du hitz. Badira, noski, pre-



zioen bilakaeran eragiten duten beste faktore batzuk, enpresamarginak, adibidez, zeinak azken hogeitun urteotan goren mailatan baitaude.

Hegoaldeko KPI

Euskal Herriko Estatistikako Institutu baten faltan (Hegoaldean ere, ez dago), prezioen bilakaera aztertzeke daukagun erreferentzia bakarra, INE-k egindakoa da.

Egoera ekonomikoaren azterketa

1990 - 1991 urtetan, INE-k egindako Familien Aurrekontu Inkesta-k (EPF), familiek kontsumo ondasun eta zerbitzutan egindako gastuei buruzko oinarritzko informazioa garatu zuen. Beraz, ez dira kontutan hartzen, autokontsumoa, subentzionaturiko kontsumoak (osasuna, hezkuntza...) eta etxeko erosketa bezalako inbertsioak.

Inkesta honen bidez, "erosketa-otarrea" ("cesta de la compra" deritzona) landu zen, hots, 8 taldetan bildutako 471 artikuluren hautaketa bat. Gastu-Arlo bakoitzari ponderazio bat dagokio, guztizko

gastuan duen porzentaiaren arabera.

Euskal Autonomi Elkarteari eta Nafarroari dagozkien KPI-ak behin ezagutuz gero, Hegoaldeko KPI kalkula daiteke, lurralde bakoitzaren urteko gastua (1.990-1.991 tarteko EPF-ren arabera) kontutan hartuz.

Edozein kasutan, gure Estatistikako Institutuek euren indize propioak garatuko balituzte, onuragarria izango litzateke, zeren hartutako populaziozko mostra, INE-k erabiltakoa baino askoz egokiagoa balitzateke.



Eranskinak

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA (EPA)

* 16 urte baino gehiagoko biztanleriak ez ditu soldaduzka edo PSSa egiten duten gizonezkoak.

SEXU BLOK	4.Hiruh. 98	3.Hiruh. 98	Desb.	Hiruh. 97	Desb.
LANDUNAK	936.000	945.300	-9.300	925.600	10.400
LANGABETUAK	162.200	171.900	-9.700	193.700	-31.500
AKTIBOAK	1.098.200	1.117.200	-19.000	1.119.300	-21.100
LANGABEZI TASA	14,8	15,4	-0,6	17,3	-2,5
ENPLEGU TASA	42,5	43,0	-0,5	42,1	0,4
IHARDUERA TASA	49,9	50,8	-0,9	50,9	-1,0
ALDIKOTASUN TASA	30,0				
16 urtetik gora	2.201.200	2.199.300	1.900	2.197.400	3.800

EMAKUMEAK	4.Hiruh. 98	3.Hiruh. 98	Desb.	Hiruh. 97	Desb.
LANDUNAK	341.400	346.300	-4.900	334.400	7.000
LANGABETUAK	99.900	103.400	-3.500	108.500	-8.600
AKTIBOAK	441.300	449.700	-8.400	442.900	-1.600
LANGABEZI TASA	22,6	23,0	-0,4	24,5	-1,9
ENPLEGU TASA	29,6	30,3	-0,7	29,8	-0,2
IHARDUERA TASA	38,3	39,3	-1,0	39,5	-1,2
ALDIKOTASUN TASA	32,9				
16 urtetik gora	1.153.200	1.144.400	8.800	1.122.600	30.600

Egoera ekonomikoaren azterketa

GIZONAK	4.Hiruh. 98	3.Hiruh. 98	Desb.	Hiruh. 97	Desb.
LANDUNAK	594.600	598.900	-4.300	591.100	3.500
LANGABETUAK	62.400	68.500	-6.100	85.200	-22.800
AKTIBOAK	657.000	667.400	-10.400	676.300	-19.300
LANGABEZI TASA	9,5	10,3	-0,8	12,6	-3,1
ENPLEGU TASA	56,7	56,8	0,0	55,0	1,7
IHARDUERA TASA	62,7	63,3	-0,6	62,9	-0,2
ALDIKOTASUN TASA	28,2				
16 urtetik gora	1.048.100	1.054.900	-6.800	1.074.800	-26.700

GAZTEAK (<25 urte)	4.Hiruh. 98	3.Hiruh. 98	Desb.	Hiruh. 97	Desb.
LANDUNAK	94.200	99.100	-4.900	95.800	-1.600
LANGABETUAK	42.100	48.700	-6.600	51.100	-9.000
AKTIBOAK	136.300	147.800	-11.500	146.900	-10.600
LANGABEZI TASA	30,9	32,9	-2,1	34,8	-3,9
ENPLEGU TASA	26,5	27,3	-0,8	25,8	0,6
IHARDUERA TASA	38,3	40,7	-2,4	39,6	-1,3
ALDIKOTASUN TASA	75,2				
16 urtetik 25era	356.100	363.000	-6.900	370.900	-14.800

HEGO EUSKAL HERRIAN EGINIKO KONTRATUAK

1998 - Urtarrila/Abendua - (Ehuneko bertikalak)

	GUZTIRA	%	Emakum.	%	Gizon.	%	<25 urte	%
EZMUGATUAK								
Ohikoak	10.130	1,4	3.041	1,0	7.089	1,7	824	0,3
Sustapenekoak	17.972	2,5	6.005	2,0	11.967	2,9	5.722	2,3
Bihurtuak	20.826	2,9	6.325	2,1	14.501	3,5	4.405	1,8
Aldi partzialekoak	7.252	1,0	4.675	1,6	2.577	0,6	1.927	0,8
Gainontzekoak	344	0,0	65	0,0	279	0,1	37	0,0
GUZTIRA	56.524	8,0	20.111	6,8	36.413	8,8	12.915	5,2
ALDIBATERAKOAK								
Obra edo zerbitzukoak	182.904	25,8	43.616	14,7	139.288	33,6	55.104	22,2
Ekoizpenekoak	223.684	31,5	76.721	25,9	146.963	35,5	90.001	36,3
Bitartekoak	66.048	9,3	41.569	14,0	24.479	5,9	14.582	5,9
Aldi partzialekoak	155.984	22,0	104.674	35,4	51.310	12,4	61.080	24,6
Praktiketakoak	10.584	1,5	4.201	1,4	6.383	1,5	6.844	2,8
Prestakuntzakoak	5.304	0,7	1.478	0,5	3.826	0,9	5.279	2,1
Gainontzekoak	8.877	1,3	3.594	1,2	5.283	1,3	2.390	1,0
AZPITOTALA	653.385	92,0	275.853	93,2	377.532	91,2	235.280	94,8
GUZTIRA	709.909	100	295.964	100	413.945	100	248.195	100

IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUAK HEGO EUSKAL HERRIA - 1998

	hil.<=3	3<hil.<=12	12<hil.<=18	18<hil.<=24	24<hil.	Azpitotala	zehazkabe
KONTRATU KOPURUA	320.481	82.449	865	369	212	404.376	249.009
%	79,25	20,39	0,21	0,09	0,05	100	

SINIESTRALTATEAREN BILAKAERA (KONTRATU MOTAREN ARABERA) HEGO EUSKAL HERRIAN

URTEA	KONTRATU EZMUGATUAK			ALDIBATERAKO KONTRATUAK			kozientea
	Soldata- pekoak	Istripuak	Tasa	Soldata- pekoak	Istripuak	Tasa	
1993	451.625	26.867	59,5	191.950	15.575	81,1	1,4
1994	437.125	26.027	59,5	199.800	16.776	84,0	1,4
1995	431.900	26.188	60,6	209.500	19.478	93,0	1,5
1996	458.600	26.093	56,9	202.900	20.620	101,6	1,8
1997	478.925	25.544	53,3	219.250	23.870	108,9	2,0
	(1)	(2)	(3)	(1)	(2)	(3)	(4)

ITURBURUAK: INE eta Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

(1) Kontratu motaren araberako soldatapekoak (EPA). Sailkaezinak kenduta.

(2) Baja eragin zuten lan eginez sorturiko istripuak, kontratu motaren arabera. (Sailkaezinak kenduta).

(3) Siniestralitate tasa: (istripuak/soldatapekoak) x 1000.

(4) Kozientea: 3* / 3**.